

## MARKINA-XEMEINGO BI UDALTZAIN LAGUNTZAILE KONTRATATZEKO DEIALDIA

Markina-Xemeingo Udalak udaltzain laguntzaile bi hartuko ditu lanerako aurtengo udaldirako (uztailaren 15etik urriaren 15era) eta deialdia egiten du lanpostu horiek betetzeko. Hartuko diren langileen kontratua lan-zuzenbideko erregimenean egingo da, denboraldi baterako eta lanaldi osorako.

### LANPOSTUA

Markina-Xemeingo udaltzain laguntzailea.

### BALDINTZAK

- Deialdian parte hartzeko, 18 urte beteak izan behar dira.
- Euskaraz hitz egiten jakitea, lanpostuari dagozkion funtzioak egoki bete ahal izateko neurrian.
- B1 mailako gidabaimena edukitzea.

### ARIKETAK ETA EURON BALORAZIOA

Honako probak egin beharko dituzte izangaiek:

**1) Ariketa (suposizio) praktiko batzuk idatziz garatzea, euskaraz edo gaztelaniaz:**  
0 - 10 puntu arte

**2) Idatziz garatutako proba horiek euskaraz ahoz azaltzea:**

2.1.- Azalpenaren beraren zuzentasuna: 0 - 5 puntu

2.1.- Euskaraz azaltzeko modua eta gaitasuna: 0 - 5 puntu.

### ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

<b>LEKUA:</b>	Markina-Xemeingo udaletxeko harreran, astelehenetik barikura, 09:00 – 13:30
<b>EPEA:</b>	2018ko ekainaren 22tik 28ra, biak barne.

Markina-Xemeinen, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita bian.

Alkatea,  
Juan Jose Txurruka Txurruka